

Zumaiko Udala

XABIER AZKUE IBARBIA

Hitanoa Zumaian

Hitanoa Zumaian

XABIER AZKUE IBARBIA

zaizkin

dakik
gaiztutan
atxibek
nauk
etorren

Hitanoa Zumaian

**Egoera, erabilera,
transmisioa eta formak**

XABIER AZKUE IBARBIA

HITZAURREA

Udaleko Hezkuntza eta Euskara Batzordearen helburua gure herriaren euskaldun izaera bermatzea izanik, alor desberdinetan gure hizkuntzaren alde lan egiten saiatu gara.

Gaur egun, herriko haur guztiek euskaraz eskolatzeko aukera dute eta Udal Administrazioa ia osotasunean euskaldunduta dago.

Zumaia gero eta euskaldunagoa izatea denez gure ardurua nagusia eta era berean, gure hizkeran somatzen ditugun zenbait galeraz kezkatu, beste urrats bat gehiago emanaz gure zumaiar hizkera aztertzea erabaki genuen eta hizkera horren barruan hain berezia den hikako tratamendua.

Horren ondorioz, Hezkuntza eta Euskara batzordeak beka bat sortu zuen eta aurkeztutako hiru proposamenen artean, Xabier Azkue zumaiarraren proiektua aukeratu zen.

Bekaren helburu nagusia gaur egungo hitanoaren egoera aztertzea zen eta gure zaharrek erabiltzen dituzten formak jasotzea. Beraz, orain esku artean dugun azterlan hau, beka horren emaitza da eta lan honen bidez, Zumaiako Hitanoaren egoera, erabilera eta transmisioa ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu.

1998an Zumaiako Udalak emandako bekari esker egindako lana da hau.

Legezko Gordailua: SS. 19/2000

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

Itxaropena, S.A. • Araba kalea, 45 • 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Bestalde, Zumaiako Hitanoari buruzko azterlan hau argitaratzerakoan epaimahai lanetan eta ondorengo gainbegiratueta parte hartu duten Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazleak eta Josefran Izpizua herri-tarrak emandako laguntza eskertu nahi dugu.

Aurrerantzean gure hizkuntza lantzen eta aztertzen jarraitu nahi genuke eta horixegatik, orain aurkeztutako lan hau, abiapuntutzat har-tzen dugu.

Denon gustukoa izango delakoan gaude.

Zumaia, 1999ko maiatzaren 21a

Montse Arana Perez

Hezkuntza eta Euskarako batzordeburua.

AURKEZPENA

Lehenengo eta behin, eskerrak eman behar dizkiot azterlan honen egileari, estimatzekoa baita bere lana aurkezteko orduan nigan jarri duen konfiantza. Egia esateko, gogo onez eta pozez hartu nuen Xabier Azkue filologo zumaiarrak bere ikerlanari aurkezpen moduko bat jar-tzeko egin zidan gonbidapena, pozgarria da-eta norberak aspaldion jorratu duen gaiaren inguruan halako ikerlerro emankor eta interesga-rria garatzen ari dela ikustea.

Gauza jakina da hitanoa oro har atzeraka ari dela. Atzera egite hori, gainera, aspaldikoa da, eta era askotakoa: lehenik, kopuruz ari da atze-raka, alegia, hitzun hikatzaileen kopurua beherantz doa; bigarrenik, erabiltzen den hitanoaren izateari edo nolakotasunari dagokio behera-kada (prozesu horren lekuko ditugu, besteak beste, toka/noka bereiz-kuntzaren galera, paradigmaren zati handi baten galera eta sintaxizko debekuen urratzea); hirugarrenik, eta azkenik, hitanoaren beraren era-bilera-esparruari dagokio ahultzea (hots, gero eta gizarte-esparru murrizgoetara mugatzen da hitanoaren erabilera).

Kontua da une honetan beharrezkoak ditugula Xabier Azkuek Zumaian egin duenaren moduko ikerketa monografikoak, edo, hobeto

esateko, herri-mailako bilakaera-joeren berri ematen diguten “mikroi-kerketa” soziolinguistikoak behar dira. Hots, hitanoaren bizitzari buruzko ikerketa xeheak behar ditugu lagunarteko tratamendua orokorki jasaten ari den ahultzearen lekuan lekuko ezaugarriak ezagutze-ko eta beheranzko bilakaera hori ahal den neurrian geldiarazteko.

Zentzu horretan, bikaina iruditzen zait Azkuek hitanoaren transmisioaz burutu duen azterketa soziolinguistikoa. Nik dakidanez, horrelako azterketak egin gabeak ziren gure artean; eta, nire ustetan, giltzarria dira hitanoaren iraupenari buruzko “diagnostiko” zehatza egin ahal izateko eta hitanoaren galtzeari mugak jartzeko. Xabier Azkuek frogatuta utzi du Zumaiaren kasurako, denok sumatzen genuena, alegia, hitanoaren gutxitzea etxetik bertatik edo familiaratik bertatik hasita areagotu dela, oraingo gazteen gurasoengandik hasita, beraz. Izan ere, Zumaiako gaztetxo hikatzaile gehienak eskolan, institutuan eta kanpoko harremanetan hasi dira ohitzen hikako tratamenduarekin. Zalantzarik gabe, hitanoaren transmisioari dagokionez, datu argigarri eta harrigarri franko aurkituko ditu irakurleak liburu honetan.

Hain zuzen ere, transmisioan gertaturiko galera horrek gaurko gazteek darabilten hitanoaren nolakotasunaren auzira eramaten gaitu, bi errealitate horiek —transmisio urriagoa eta gaurko hitanoaren nolakotasuna (bestelakotasuna)— soka beraren bi muturrak izaten baitira askotan: gazte gehienek aitortu dutenez, haien hitanozko paradigma nahikoa mugatua da eta, gainera, sarri-askotan urratzen dituzte hitanoaren sintaxi-arauak (menderatuetan erabiltzeko debekua, etab.).

Esandakoari guztiari, noketa tratamenduaren gainbehera aurreratu(egi)a gehitu behar zaio. Gauza ezaguna da euskal herri askotan —gehienetan ez esatearren— nokako tratamendua guztiz markatua dela, are hikatzaile den hiztunarentzat ere. Izaera markatu hori nahikoa hedatuta dago Euskal Herri guztian barrena, eta Azkueren ikerketari esker frogatuta geratu da Zumaiaren bertan ere gauzak ez direla oso bestela gertatzen. Gogotik gomendatzen diot irakurleari transmisioaren atala.

Gainera, liburu honetan Zumaiako hitanoaren paradigma eskaini zaio irakurleari; ez dago dudarik bilduma hori guztiz lagungarria ger-

tatuko zaiola Zumaiako hikatzaile trebatu gabeari bertako adizkera hikakoak ikasteko eta erabiltzeko.

Xabier Azkuek egin duen lanari esker, zumaiarrek badute herriko hitanoaren bizitzaren “diagnostiko” zehatza, baita lagunarteko tratamenduari arnas berria emateko gako batzuk ere. Beharrezko neurriak garaiz hartuz gero, guztiz sinesturik nago liburu hau oso baliagarria izan daitekeela Zumaiako hitanoaren iraupenerako eta are susperraldirako ere. Pozgarria litzateke aurrerantzean honen moduko ikerlanak beste herri batzuetan ere egingo balituzte!

Xabier Alberdi Larizgoitia (EHUko irakaslea)

AURKIBIDEA

1. ATARIKOA	13
2. HURBILPEN TEORIKOA	14
2.1. Zer da hitanoa?	14
2.2. Tratamendu-motak	16
2.3. Alokutiboak eta debeku sintaktikoak	17
2.4. Tratamenduen bilakaera euskaraz	19
2.5. Hiketaren egoera Euskal Herrian	20
3. EGOERA ETA ERABILERA	22
3.1. Baserritarrak	23
3.2. Gaztetxoak	25
3.3. Koadrilak	27
4. TRANSMISIOA	29
4.1. Gaztetxoan emaitzak	30
4.2. Gurasoen emaitzak	42
5. ADITZ-TAULAK	53
5.1. ZUMAIako aditz-formak	55
5.2. OIKIako aditz-formak	56
6. ZUMAIAKO HIZKERA	89
7. BIBLIOGRAFIA	96

1. ATARIKOA

Zumaiako hitanoari buruzko lan hau bertako Udalak gai honen inguruan erakutsi duen interesaren emaitza da. Hitanoari buruzko ikastaro baten ondoren honelako lan baten beharra ikusi zen, eta lana burutzeko beka bat ezartzea erabaki zen. Lana amaitzeko uste baino denbora gehiago behar izan dugu, eta horregatik eskertu beharra daukagu Zumaiako Udaleko Euskara-batzordeko kideek agertu duten jarrera eta pazientzia. Hasieran ezarri ziren helburuak lan honekin nolabait beteko zirela, horixe da gure itxaropena.

Liburuaren egiletzat Xabier Azkue ageri baldin bada ere, laguntzaileen parte-hartzerik gabe ezinezkoa izango litzateke lan hau burutzea: inkestak egiten, zintak transkribatzen, informatika kontuak zuzentzen eta antzeko lanetan aritu direnei bihoazkie nire eskerrik beroenak. Gauza bera nire zalantza eta kezka argitzen saiatu diren irakasle eta adituei ere. Eta nola ez, harrera bikaina egin didaten eta nik egindako galderak pazientzia handiz erantzun dituztenei, zer esan? Bihotzez, mila esker.

Mamiari helduta, liburuxka nola antolatuta dagoen azalduko dizuegu.

Lehenik eta behin, azaletik bada ere alderdi teorikoari gainbegiratu bat eman nahi genioke, eta gaia nolabait kokatu. Bertan, hurrengo ataletan agertuko diren kontzeptuei buruzko azalpen labur batzuk eskaintzen ditugu.

Jarraian, erabilerari dagokionez hitanoa Zumaian nola dagoen ikusi nahi genuke, eta horretarako, azalpen orokor bat eman ondoren, zenbait talde bereziki aztertuko ditugu: baserritarrak, gazteak, gaztetxoak...

Hurrengo atalean, berriz, inkesta batek transmisioari dagokionez Zumaian nola gauden adieraziko digu, hau da, gurasoek seme-alabei hika edo zuka nola zuzentzen zaizkien, zergatik, eta belaunaldi edo generazio batetik bestera gauzak nola aldatu diren.

Aditz-taulak datoz ondoren, hots, lekukoek emandako formek Zumaian hika nola hitz egiten den erakutsiko digute amaiera aldean. Zenbait adibideren bitartez hobeto ikusiko duzue nola erabili behar diren. Era berean, zenbait ohar labur eta Oikiako formak ere jasotzen dira.

Eta amaitzeko, mahainguru batetik ateratako pasarte batzuk papere-ra ekarri ditugu, Zumaiako hizkeraren erakusgarritxo bat izan dezagun eta batik bat hitanoa nola erabili behar den erakusteko.

Besterik gabe, orri hauetan murgiltzeko gonbidatu nahi zaitugu. Liburuxkari edota gaiari buruzko ohar, iritzi edo kritikaren bat egin nahi badiguzu, atsegin handiz jasoko ditugu, Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuan.

2. HURBILPEN TEORIKOA

Atal honen xedea ez da hitanoari buruzko azterketa teoriko bat egitea, gaia zertxobait kokatu eta gero lanean azalduko diren zenbait kontzeptu azaltzea baizik. Beraz, hurrengo lerroetan hitanoa zer den, zer tratamendu-mota dauden, izan duten bilakaera eta gaur egun duten egoera labur-labur ikusiko digu.

2.1. Zer da hitanoa?

Hauxe izango da hizkuntzalaritza-kontuetan hain aditu ez diren gehienek egingo duten lehen galdera. Gehientsuenek, ordea, jakingo dute HIKA aritzearekin lotuta dagoela, eta horixe da azken finean hitanoa, hikako tratamendua edo hizkera. Ikus dezagun, bestela, hiztegian nola definitzen den:

“*Hi* izenordainaren erabileran oinarri duen lagunarteko tratamendua. *Hi* bigarren pertsona aditzaren *nor*, *nork* edo *nori* kasua denean,

dagokion adizkia erabiltzen da, eta *hi* pertsona aditzaren partaide ez denean, dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira.” (Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa)

Hitanoaren sinonimo dugu hiketa ere. Hika ondo hitz egiten duen pertsonari buruz “hiketa egoki darabilela” esan dezakegu, beraz. Era berean, hika egiteko ohitura duen pertsonari “hikatzaila” deituko diogu.

Beharbada hitanoaren definizioan egiten den bereizketa argitzea komeniko da, aurrera ekin baino lehen. Amaieran forma alokutiboak aipatzen ditu; baina zer dira forma alokutiboak?

Euskaltzaindiak argitara eman zuen EGLU II gramatikan honelaxe azaltzen du alokutiboen kontua.

“NORK, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik”. (387 or.)

Pare bat adibide ikusita errazago ulertuko da:

a) Julene **etorri da** Aitorren bila.

b) Julene **etorri dun** Aitorren bila.

Bietan ere mezua oso antzekoa dela ikusten da, eta biek dute perpausaren nor sintagmarekin komuntadura, baina bigarrenak informazio gehiago ematen digu. Izan ere, Julene etorri dela esateaz gain hiztunak hizketa-laguna ere gogoan duela adierazten du. Hau da:

Etorri dun + hirekin ari naun

Forma hauek dira alokutibo delakoak, eta hitanoaren kasuan hauei esker hiztunak aurrean duena gizona zkoa ala emakumezkoa den ere jakin ahal izaten digu: goiko kasuan, emakumezkoa dela adierazten zaigu. Emakumeari zuzendutako hikako jardunak badu bere izena, NOKA aritzea edo NOKETA hain zuzen; gizona zkoa zuzentzen gatzazkionean, berriz, TOKA ari garela esan daiteke, TOKETA darabilgula.

Forma alokutiboetara itzuliz, bigarren pertsonari (hau da, solaskideari) dagozkion forma batzuk hartzen dituzte (-K/-A-; -N/-NA-) perpaus-

seko izen sintagmek ezartzen dizkieten komunztadura-markez gainera. Bestela esanda, lehen eta hirugarren pertsonen dagozkien forma bereziak dira, bigarren pertsonako marka jakin batzuk erakusten dituztenak. Hikako forma hauek ez dira alokutibo bakarrak, ekialdeko euskalkietan *Zuka eta Xuka alokutiboak* ere aurki baikenitzake:

Esate baterako, “Gizona joan da” esateko:

Gizona joan duzu/düzü

Gizona joan duxu

2.2. *Tratamendu-motak*

Aurrera jarraitu baino lehen, zehaztu nahi nuke aurrerantzean “tratamendu” deitzen diodan horri zenbait autorek “erregistro” izenez deitu izan diotela, baina Jabier Alberdik esandakoari men eginez, “erregistro hitza hizkuntza baten oinarritzko hizkera-mailak ere (hizkera jaso edo landua, estandarra, lagunartekoa, herrikoa, arrunta...) izendatzeko erabiltzen denez, nahasgarri gerta daiteke”.

Zumaiarro dagokigunari helduta, Hego Euskal Herriko toki askotan bezala, oinarritzko bi tratamendu ditugula esan genezake:

a) Tratamendu neutroa edo eztabadakoa, 2. pertsona singularizat ZU duena

Zu etorri zara

Mikel joan da

b) Tratamendu markatua (hitanoa, lagunartekoa ere deitua), 2. pertsona singularizat HI duena

Hi etorri haiz

Mikel joan duk/n

Gehienontzat bereizketa hau HIKA edota ZUKA tratatzea da, baina aintzat har dezagun bata edo bestea aukeratu, ondorio desberdinak sortzen direla. Solaskideari ZU egiten badiogu, forma neutroak edo eztabadakoak erabiliko ditugu. HI eginez gero, berriz, nahitaez hikako forma alokutiboak erabiltzera behartuta gaude, ez da zilegi tratamenduz aldatzea.

Zu etorri zarenean joan da Ander (zuzena)

Hi etorri haizenean joan da Ander (okerra)

Hi etorri haizenean joan duk/n Ander (zuzena)

Bi hauez gain, beste tratamendu bat ere erabili izan da duela gutxira arte, eta oraindik ere zenbait pertsonak erabiltzen du beste pertsona jakin batzuekin: BERORIKA deiturikoa da. Gaztelaniaren eraginez edo sortua dela diote zenbaitek, “usted” izenordainaren pareko bat izateko. Bigarren pertsona NOR, NORI edo NORK bada, aditzak hirugarren pertsona balitz bezala hartzen du, komunztadurari dagokionez.

Berori berandu etorri da

Batez ere apaizekin erabiltzen zen tratamendu-mota hau, baina baita mediku, jauntxo eta adineko zenbait lagunekin ere (aitona-amona, guraso...). Tratamendu honek, ordea, hitanoak eta zutanoak (zuka alokutiboak) ez bezala, ez du forma alokutiborik.

Berori joan da eta hura etorri da

2.3. *Alokutiboak eta debeku sintaktikoak*

Forma alokutiboekin amaitzeko pare bat ohar egin nahi nituzke. Batetik, forma alokutiboak beti ere 1. edo 3. pertsonari dagozkienak izango dira; beraz, alferrik izango da “egin duzue” edota “jaso duk” formen alokutiboaren bila hastea. Bestetik, testuinguru sintaktikoak zenbait muga eta debeku ezartzen dizkigu zenbait kasutan. Esate baterako, perpaus txertatuek ez dute forma alokutiborik onartzen:

Ez zioat esan Telmo etorri du(k)ala

(Zumaian, dekela)

OKERRA

Galderazko eta harridurazko perpausetan ere ez da forma alokutiborik onartzen, joera nagusi bezala behintzat ez. Badirudi forma alokutiboa zuzenean baieztatua edo enuntziatua denerako gordetzen dela.

Mikel etorri al duk?

OKERRA

Mikel etorri al da?

ZUZENA

Egindakoa damutuko ahal zaion!


OKERRA

Egindakoa damutuko ahal zaio!

ZUZENA

Debeku guztiak ez dira neurri berean errespetatzen eta froga gisa, badirudi galde-perpauzetan bestetan baino errazago sartzan direla alokutiboak. Bestalde, euskalki eta lurraldearen arabera ere joera desberdinak daude; esaterako, Bizkaiko zonalde batean menpeko perpauzetan alokutiboak erraz sartzan dira. Hala erakusten du Gotzon Aurrekoetxeak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) aztertuz egingakoa artikulua.

Debeku hauei buruz aipagarria da batez ere gazteen artean dagoen ezjakintasuna. Aditz-formak aldatu behar horretan, ez dute bat bera ere errespetatzen eta “etorri dekela” eta “jun dekenian” bezalakoak barra-barra entzuten dira. Zenbaitek hala uste badu ere ez da oraingo kontua, ordea. Txillardegik 1968an Euskera agerkarian argitaratutako artikuluan honela dio: ...hika-ren aldeko mogimendu zabal bat sortu da Euskal Herrian Literaturaren bidez. Baiña batzuk behar bezin sakonki problema ez ezaguturik, sekulan esan ez diran formak idazten hasi dira, hizkuntzaren bidetik baztertuz. Esate baterako: etorri *dukala* esan dik, joan *dukan* gizona harrapatu ditek, nor erori duk hire ustez? Hika mintzatuagatik ere, ez baitira forma aldatuak kasu guztietan erabiltzen”.



Baleike aldizkaritik jasotako irudia. Batetik Zumaian esaten ez den forma bat ageri da (*zaitek*, Zumaian *zikak* erabiltzen da); baina larriagoa eta askoz zabalduagoa da beste akatsa, alokutiboa ez dagoen perpau txertatua sartzea (*diatela* formaren ordez *detela* jarri beharko litzateke hor).

Euskal Herrian oso hedatuta dagoen ohitura edo akatsa da gaur egun (*), eta gure herria ez da salbuesten. Zumaiari dagokionez, erabilera aztertzerakoan sakonduko dugu puntu hau, ordea.

2.4. Tratamenduen bilakaera euskaraz

Jabier Alberdik bere lan mardulean gai honi buruz ematen dituen zenbait azalpen ekarri nahi nituzke lan honetara. Lehenik eta behin hemen azalduko direnak uste mailako hipotesiak direla zehaztu behar da, izan ere euskaraz idatzizko lehen lanak ez dira hain aspaldikoak —beste hizkuntzekin alderatuta, behintzat— eta aldaketak dokumentu bidez egiaztatzeko zailtasuna izugarria da.

Alberdiren ustez, *zu* izenordain begirunezkoaren bilakaera honelakoa izan da:

zu plurala → zu plurala/zu begirunezkoa (sing) → zu begirunezkoa

Hau da, lehen urratsa begirunea adierazteko pluraltasunaz baliatzea izango zen, izenordain bera zeregin bitarako erabiliz. Bigarren urratsa *zu*-ren singularitzea izango zen, aurreko urratsaren ondorioz sortutako anbiguotasuna saihesteko, eta honekin lotuta *zuek* izenordain plural berrituaren sorrera egongo zen. *Zu* izenordain begirunezkoaren antzinako pluraltasuna eta *zuek* pluralaren berritasuna agerian uzten dituzten arrazoiak nahiko sendoak dira: *i/u* erro desberdinak, bien pluralgi-leak, zenbait lekukotasun, eta abar.

Alberdiren ustez nahiko arrazoizkoa litzateke pentsatzea euskarak bilakabide hau alboko hizkuntza goitarragoen eraginez egin zuela, hau da, frantsesaren eta gaztelaniaren eraginez (*vous* eta *vos* begirunezkoak).

Mendeen joan-etorrian hegoaldeko euskararen *hi/zu* bikoteari hirugarren maila bat erantsi zaio: *berori* izenordain “hiperbegirunezkoa”, hain zuzen ere. Baina Jabier Alberdik aipatzen duenez, badira arrazoiak beroriketa tratamendua hegoaldeko euskararen berrikuntza ez oso antzinakotzat hartzeko: lehenik, hegoaldeko euskalkietara mugatuta

(*) Gazteen artean oso ezaguna den talde baten hitzak (letra) horren lekuko. *Kasbah* taldearen “Lehertuz!!” abestia: “Beren zentsurari uko egin dio(n)ala, hirea, heurea **dukelako**, hirea, heurea **dukelako**!! Hire pentsamenduak ez **ditukela** ixilak, hitz-hilak!! Aske haizela nahi du(n)ana esateko”. Beltzez jarritako forma alokutiboak ez zegoen tokian sartu dituzte (**delako** eta **direla** ziren egokiak).

egotea; bigarrenik, XVI. mendeko literatur tradizioan aztarnarik ez izatea; eta azkenik, euskal tratamendu-sistema hirukoitzaren *hi/zul/berori* eta gaztelaniazkoaren *tu/vos/vuestra merced* izenordainen artean dagoen antzekotasuna. Honez gain, ez omen dirudi *zu* eta *berori* izenordainen artean sekula zinezko alternantziarik egon denik, eta izenordain honen gainbehera neurri handi batean beraren erabilera asimetrikoagatik esplika daiteke —hau da, batek *berori* esan besteari eta besteak hika edo zuka erantzun—, *berorik* botere-zama handiegia zeraman itsatsita erabilera neutroan arrakasta izateko.

Hikako aditz-joko alokutiboaren antzinatasunaz, berriz, ez dago zalantzarik bere zahartasunaz, lehenbiziko testuetatik dokumentatuta dagoelako eta halako sistema morfologiko korapilatua ezin daitekeelako goizetik gauera eraiki. Alokutiboak adizkera neutroarekin alderatuz gero, ordea, alokutiboen geroagokotasuna eta izaera markatua azpimarratu beharrean gaude. Aditz-joko alokutiboa, jatorriz, solaskidea azpimarratzeko eta hizketaldiaren harira biltzeko enuntziatio-eragiketa adierazkor baten emaitza ihartua litzateke. Hau da, forma alokutiboen jatorria adizkera biltzailean topatu beharko genuke. Gaur euskararen ere egiten dira horrelako “egitura biltzaileak”, helburutzat solaskidearen arreta jasotzea dutenak:

Gure baserritarra zintzoa da → Gure baserritarra zintzoa duzu

Sinkroniaren ikuspuntutik adizkera “biltzaileak” eta “alokutiboak” fenomeno desberdinak eta ongi bereizi beharrekoak badira ere, diakroniaren ikuspuntutik, beti ere Schuchardten interpretazioaren arabera, solaskidearen “bilketa” edo “inplikazio eragiketa” egongo zen aditz-joko alokutiboan sustraian.

Bestalde, aditz-joko alokutiboentzat, ondorengo hurrenkera proposatzen du Alberdik: lehenik hitanoa dugu, ondoren zutanoa (alokutiboa), aurrekotik analogia bidez sortua eta azkenik, xuketa (alokutiboa), zuzenean zutanotik palatalizazio bidez erakarria.

2.5. Hiketaren egoera Euskal Herrian

Hiketa euskararen eremu osoan barrena hedaturik dago, baina ez dauka indar eta bizitza bera eskualde guztietan, zoritxarrez, ezta

gutxiagorik ere. Izan ere, badira nolabaiteko hutsune batzuk hiketaren eremuan. Esate baterako, Bizkaia aldean tratamendu hau ia erabat galdua dago itsasaldeko herrietan eta biziago eta osasuntsuago irauten du barrualdeko hizkeretan. Mende hasieran Azkuek bere *Flexionario...* lanerako Bizkaiko eskualde gehienetako hitanoa jaso zuela kontuan hartuta, pentsatzekoa da hitanoaren galera Bizkaian azken mende honetan azkartu dela. Jabier Alberdi irakaslearen ustez, “baliteke galtze azkar hori neurri handi batean hitanoaren gainean hedatuta dauden gaitzespenezko aurreiritzien ondorio izatea; izan ere, hikako tratamenduak —noketak bereziki— ez bide du ospe onegia Euskal Herriko hainbat herritan, ez Nafarroan eta Lapurdin, ez eta bereziki Bizkaiko zenbaitetan”.

Esandakoaren adibide da Pedro de Yrizarrek laguntzaileen aldetik jasotako iritziak. Nils M. Holmerrek aitortu zionez, hitanoa Bizkaian “bortitza eta iraingarria” da eta asko kostatzen da forma hauek ateratzea, hiztun askok ez baitituzte bertakotzat jotzen, gainera, “Gipuzkoa aldeko formak omen dira”! Ondarroatik, Forutik, Mundakatik... esaten diote Yrizarri beren herrietan ez dela ia hiketarik erabiltzen, eta beste zenbaitetan, berriz, tokako adizkiak bakarrik jaso dira. Yrizarren arabera, hitanoaren galera zertxobait sartzen omen da Gipuzkoako kostaldean (Mutriku), baina bestela gainerako euskalkietan ez dago Bizkaikoaren moduko hutsune edo salbuespenik hiketaren eremuan.

Zenbait herritan, dena den, kale edo hiri eta baserriaren arteko bereizketa egin behar izaten da: kaletarren artean hiketa galdua edo erdi galdua dagoen bitartean, baserri-giroan ondo bizirik irauten du lagunarteko tratamenduak. Bestalde, aipatu beharra dago hitanoaren galera askoz ere larriagoa eta orokorragoa dela noketari bagagozkio. Alberdik esaten duenez, “noketa tratamenduari erdialdeko euskalkietan eusten zaio hobekienik, baina gipuzkera eta iparraldeko goi-nafarreratik kanpo, ez dira asko toka eta noka *normaltasun* osoz aritzen diren herriak”.

Euskal Herriko egoerarekin alderatuta, ez dirudi hitanoaren egoera Zumaian hain larria denik, baina ondoren datozen ataletan ikusiko dugu nola batez ere noketak gurean indar oso gutxi duen.

3. EGOERA ETA ERABILERA

Hitanoa Zumaian nola dagoen eta noiz-norekin-nola erabiltzen den aztertzea da atal honetan egingo duguna. Horretarako bidea zenbait talde bereizi eta galderak egitea zela ikusi genuen. Hiru arlo bereizi eta bakoitzera egokitutako galdekizun labur batzuk prestatu genituen, erantzunek joera orokorren berri emango zigutelakoan. Honako hauek izan dira aztertutako arloak:

- **BASERRITARRAK:** beste era bateko hizkera eta aparteko bizi-modua dutela kontuan hartuta, hitanoarekin lotutako ohiturak eta iriztiak biltzea izan da asmoa.

- **GAZTETXOAK:** eskolan eta eskolaz kanpoko ekintzetan zer ohitura dauden jakin nahi izan da. Transmisioa ere ukitu da eta hika noiz eta norekin hasi diren zehaztea izan da beste helburuetako bat.

- **KOADRILAK:** hamabost eta hogeita hamar urte inguruko gazte-ek tratamenduei dagokienez zer-nolako ohiturak dituzten jaso nahi izan da.

Hauetz gain, 5. ataleko aditz-formak jaso ahal izateko gure lekukoe-kin gai honi buruz pixka bat hitz egin ahal izan dugunez, inpresio orokor bat atera dezakegu, ohitura eta iritzietan oinarriturik. Azpimarragarria da, bestalde, gizonezkoen aldean nekezago topatu direla “hika” egiteko nolabaiteko ohitura duten emakumeak; zenbat eta gazteagoengana jo, orduan eta zailago, gainera. Noketaren ahulezia bistan geratu da, hasiera-hasieratik.

Honako puntuak azpimarratuko genituzke:

- Batzuek gurasoen aldetik jaso dute hitanoa; beste batzuek, berriz, gurasoen aldetik jaso ez baina anai-arreba eta adiskideen arteko harremanetatik jaso dute.

- Hika jarduteko ohitura baduten arren guztiek ez dute hain gogoko. Zenbaiti orain “itsusi” samarra iruditzen zaie, eta lehengo lagunekin bakarrik aritzen omen dira.

- Lagunartean eta anai-arreben artean hika egin arren, lekukoetako askok seme-alabei zuka egiten diete, egokiagoa delakoan.

- Gizonezkoen kasuan askok noka egitea asko kostatzen zaiela aitortu digute. Gehienek senideekin eta lagunekin bakarrik jarduten omen dute hika.

- Bakarriketan eta abereei zuzentzeko hiketa erabiltzen dute ia denek. Toka pentsatzen dute zenbait emakumek (“gustoa geatu nauk”), baina ez zuzenean beren buruari zuzentzerakoan (“earra in den”). Hau da, protagonista lehen edota hirugarren pertsona denean tokako formak erabili ohi dituzte, baina norbere buruari beste bat izango balitz bezala zuzenduz gero noketa darabilte.

- Askoz gazteagoa den batek beraiei hika zuzentzea gaizki hartuko lukete batzuek; beste batzuei, berriz, “grazidxa” egingo lieke, baina “toxante” samarra dela iruditzen zaie.

3.1. BASERRITARRAK

Ez dira baserri guztiak aztertu, beraz ezin da ziurtasun osoz esan gehienetan era batera edo bestera jokatzeko denik. Joera nagusi batzuk aipa litezke, ordea. 10 hartu dira, auzoka banatuta:

BASERRIA	AUZOA	LEKUKOA	ADINA
Konde	Oikia	Eustakio Alberdi	76
Lore	Oikia	Bartolo Etxabe	70
Miraballes	Oikia	Jose Luis Urtubia	72
Epiola	Oikia	Mariana Lopetegi	84
Artzain	Meaga	Ramon Peñagarikano	61
Torre	Artadi	Emili Ibarbia	84
Endañeta Zar	Elorrixa	Joxe Mari Aizpurua	58
Saskate	Elorrixa	Angel Osa	64
Agerre Bekua	Elorrixa	Ana Goenaga	78
Otalora	Estazioa	Mertxe Garate	45

Ikus daitekeenez, lekuko gehienak 60 urtetik gorakoak dira, eta horrek garai batetik gaur egunera bitarteko aldaketak aztertze-ko auke-

ra eskaini digu. Bestalde, baserri hauek guztiak ez dira maila berekoak, eta batzuetan lekukoaren bizimoduaren motore den edo izan den bitartean, beste batzuetan osagarri bat besterik ez da.

Hamar elkarrizketa hauetan, lehenik eta behin datu nagusiak hartu eta jarraian 10 galderaz osatutako galdekizuna landu zen. Hauei emandako erantzunak zenbait puntutan banatuta aztertuko ditugu.

Familia: etxekoak eta kanpoko senideak

Lehendabiziko galderan etxekoen artean hika-zuka bikoteak nolako sarea osatzen duen argitzea zen helburua, hau da, senar-emazte, seme-alabak, aiton-amonak elkarren artean eta besteekiko hika edo zuka nola egiten duten.

Aztertutakoen artean gehienek hika egiteko ohitura badute; nahiko hikatzailak dira, beraz. Gurasoek lekuko gehienei hika egiten zieten, beraiek senideen artean hika egin izan dute eta seme-alabei ere hika zuzentzen zaizkie. Bilobak dituztenek, ordea, haiekin zuka egiten dutela esan digute ia denek.

Bestalde, senar-emazteen artean hika egitea debekatutako kontua izan da orain artean, orain kontu hauetan askatasun handiagoa dagoela aitortu arren. Oraingo ohitura “berri” hauen kontrako iritzi sutsuak ere bildu ditugu: “Andriari zuka eta musuka. Matrimoniyuak —bueno, oain matrimoniyoik ba al do?—, juntatutakuak eta alkarri hi, ez zatek gustatzen; ez errespetuik, ez maitasunik horrela”.

Bigarren galderan, berriz, hain hurbilekoak ez diren senideekiko ohiturak aztertu dira. Izeko-osaba eta iloben arteko erlazioak guraso eta seme-alaben artekoenen antzekoak dira oso, hau da, adibidez semeekin hika egiten duenak ilobekin berdin jokatzeko duela. Emakumeek ilobekiko tratuan zukara jotzeko ohitura handiagoa dutela ere jaso dugu. Bestetik, lehengusuen artean hikako joera nagusi dela jaso dugu, urrutikoak edota adinez askoz zaharragoak ez badira behintzat. Lehengusuekin ezkonduetakoekin, koinatu-koinatekin, suhiekkin, errainekin... zuka —hots, erabilera neutroa— nagusitzen dela esan dezakegu, maila berekoen kasuan gaur egun hikarako joera handitzen doala ikusten bada ere.

Zenbait faktore: adina, sexua, konfiantza

Hurrengo galderetan hitanoaren erabilera baldintzatzen duten zenbait faktoreren inguruan galdegin zitzairen. Lekukoek erantzundakoaren arabera, adina lehen hika egiteko oztopo handiagoa zen orain baino; lehen “debekatua” zegoen zaharragoari hika egitea, eta adinean zegoen aldeak zenbaitetan anai—arriben artean edo lehengusuekin zuka egitea eragiten zuen. Gaur egun askatasun gehiago dago, edadetuei “Itsusia” iruditzen zaien arren. Esate baterako gehienei “gaizki” edo “oso gaizki” irudituko litzaieke gazte batek beraiei hika egitea, errespetu faltatzat joko lukete. Adinean alde handirik ez dagoenean onargarria izan liteke, baina oro har ez da ondo ikusten, konfiantza adieraz lezakeen arren.

Bakarrizketa, ganadua, iritzia

Senideekin edo adiskideekin hikarako joera duenak hika egin ohi dio bere buruari ere, eta baita etxeko abereei ere, gehienetan. Elkarrizketatu ditugun gehienek hika egiterakoan ez dituztela emeak apartatzen esan digute, baina zenbait kasutan tamainagatik —txakur txikiei batez ere— edota afektuagatik noka edota zuka ere egiten zaie la ikusi dugu.

Hitanoari buruzko iritzia eskatzean orain dagoen “libertade” handiagoa aipatzen dute gehienek, alegia, adinari edota erlazio-motari lehen baino gutxiago erreparatzen zaiola orain, baina batzuk besteak baino kritikoago azaltzen dira horren aurrean.

3.2. GAZTETXOAK

Neska-mutilen hizkuntza ohiturak ezagutzeko lehen hurbilketa bat egin nahian, Zumaiaiko Institutura jo eta bi gelatako neska-mutilak hartu ziren, maila berekoak, 14 urte ingurukoak. Guztira 23 mutil eta 21 neskaren erantzunak bildu ziren. Puntu honetan joera orokorrak besterik ez ditugu azalduko, eta datu zehatzak eta azterketa sakonagoak 4. ataleko lehen zatirako utziko ditugu, transmisioa ikusten dugunerako.

Argitu beharreko kontua da gaztetxo hauek guztiak ez direla zumaiarrak: Aizarnazabal, Arroa eta Oikia aldeko neska-mutilak ere badaude, eta zenbait diferentzia ikusten dira zumaiarrekin alderatuz

gero: hika egiteko joera handiagoa dute eta lehenago hasten dira lagun artean hitanoa erabiltzen. Ikastolan eta Julenen ibilitakoen artean alde handia ikusten da erabilerari dagokionez, oro har lehenengoak hikazaleagoak baitira. Mutilen eta nesken artean ere diferentzia nabarmenak dira eta horregatik aparte jaso eta aztertu behar dira erantzunak.

Hamasei galderaz osatutako galdekizunean gelan, lagunartean, etxean nola egiten zuten galdetu zitzairen lehenbizi. Azken ariketa gisa gaztelaniazko zenbait esaldi eman zitzaizkien, euskarara itzuli eta hika jar zitzairen; ariketa honen helburua syntaxizko debekuak ea errespetatzen dituzten jakitea zen, hau da, *dekenian*, *dekela*, eta. lekuz kanpo erabiltzen ote zituzten egiaztatzea. Zehazki, honako esaldiak jarri genizkien, eta ia denek toka erantzun dute:

- ¿Ha venido Mikel? (da/dek)
- Los vi en la calle (forma jasotzeko: nixkian, nitian, nixkin...)
- Estaban con Josune (forma jasotzeko: zitxauden, zitxaben...)
- Ha dicho que
vendrá tarde (dala/dekela)
- Si viene, quiero verle (bada/badek)
- Cuando venga,
dile que me llame (danian/dekenian)
- El que ha llegado
ahora es mi cuñado (dana/dekena)
- No se si vendrá (dan/deken)

3.2.1. Neskak

Neskei dagokienez, gela hauetan oso gutxi dira beste neskekin hika egiten dutenak. Mutilei, ordea, errazago egiten diete. Mutil batzuek hika egiten diete, baina askotan tokako formak erabiliz.

Koadrilan zuka egiten dute batez ere, baina zenbait kasutan bietara aritzen direla esan digute. Entrenamenduetan eta bestelako ekintzetan

oso zaila da hika egitea. Benetan azpimarragarria da oso-oso gutxi direla etxean hitanoa jasotzen duten gaztetxoak; askorentzat eskolako eta koadrilako kontua besterik ez da hitanoa.

Zaharragoekin eta ezezagunekin hika hitz egiteko oztopo handirik ez dute ikusten gehienek, baina bai irakasle eta familiako zaharragoekin.

Gaztelaniazko esaldiak itzultzeko eman zaizkienean, guztiek toka aukeratu dute, eta ia inork ez ditu errespetatu syntaxizko debekuak.

3.2.2. Mutilak

Mutilen kasuan, elkarri hika egitea da joera orokorra, baita koadrilan eta entrenamenduetan ere. Neskei bietara egiten zaie eta erdiek aitortzen dute hauekin tokako formak erabiltzen dituztela.

Etxean nesken kasuan baino gehiago egiten zaie hika, eta ia denek aipatzen dutenez lagunekin hasi ziren hika hitz egiten, duela urte batzuk.

Askok onartzen dute beren hitanoa "mugatua" dela eta forma batzuk bakarrik erabiltzen dituztela.

Mutilen kasuan ere ia kasu guztietan ez dira syntaxizko debekuak errespetatzen.

3.3. KOADRILAK

Pixka bat helduagoak diren gazteen ohiturak jaso eta aztertu nahian, Zumaiako dozena bat koadrila hartu ditugu, 18-30 urte bitarteko neska-mutilez osatutakoak. Ordezkari bat edo birekin hitz egin eta lehenbizi datuak eta tratamenduei dagokienez dituzten ohiturak jaso dira.

Bigarren zatian ordezkariari galdera zehatzago batzuk egin zaizkio, horien artean gaztelaniazko zenbait esaldi toka eta noka nola esango lituzkeen, syntaxizko debekuak errespetatzen ote dituen jakitearren (gaztetxoekin erabili direnen oso antzekoak).

Oro har nesken artean oso gutxi erabiltzen da hitanoa, ia batere ez, eta erabiltzen den apur hori “esaldi tipikoetara” mugatzen da: zuzenean egindako galderak, jakineko esamoldeak...

Mutilen artean dezenteko ohitura dago elkarri hika egiteko, baina ez da sustrai sendo eta sakona duen kontua. Hamalau urteak bete baino lehen inork gutxi egiten zuen hika, eta kanpoko gazteekin erlazionatzerakoan hasi ziren batez ere hitanoa erabiltzen; badirudi azpeitiar, zestoar eta getariarrek zumaiarrok baino joera handiagoa dutela horretarako.

Bestalde, mutilek neskei gutxi egiten diete hika, eta zenbait kasutan tokako formak erabiliz (azpeitiarrek fama handia dute horretan). Hau da, toketa neutroa balitz bezala erabiltzen da, guztientzako balioko balu bezala: hori gertatzen omen da, esate baterako, bilera batzuetan neska-mutilak egon eta pertsona batzuk denentzat hitz egiten hasten direnean. Larriagoa da, hala ere, neskari zuzenean tokako formekin hitz egitea, eta zenbait gazteren artean antzeman dugu joera hori.


Gaztetxoek kasuan bezala, etxean oso gutxi egiten diete hika. Aipatzekoa da badirela neska batzuk etxean hitanoa jaso eta gero koardilan bultzatzen saiatzen direnak; horrek, ordea, ahalegin handia eskatzen du, eta emaitzak ez dira berehalakoak izaten.

Oro har, sintaxizko debekuak ez dira errespetatzen eta ez dituzte hitanoaren paradigma guztiak ezagutzen, ez batukoak ezta Zumaiako formak ere.

Hitanoaren kalitateaz

Kalitatea neurtzeko galdeketa zehatz eta sakonik egin ez bada ere, haur eta gazteek erabiltzen dituzten aditz-formen desegokitasuna agerian geratu da askotan. Behaketan oinarrituz, askotan tratamendu neutroa eta hitanoa nahastu ohi direla ohartu gara, herriko formak eta batuarenak nahasten dira, behar ez den tokian sartzen dira alokutiboak eta toketa erruz erabiltzen da solaskidea emakumezkoa izanik ere.

Inkestetan BIETARA egiten duen jende asko dagoela jaso dugu, baina ez bakarrik batzuekin ZUKA eta beste batzuekin HIKA. Tratamendua finkatu gabe dago kasu askotan, eta arrazoietakoa bat hitanoa egoki menperatzeko zailtasuna izan daiteke: lehenaldiko formak, pluralekoak, NOR-NORI-NORKEkoak eta abar sartu behar direnean, forma horiek hain ezagunak ez direnez, neutroak sartu ohi dira.



4. TRANSMISIOA

Gaztetxoek artean egiten den hitanoaren “kalitatea” ikusita eta adin-tarte jakin batean batez ere emakumeen kasuan dagoen hutsuneaz ohartu ondoren, belaunaldiz belaunaldi ematen den transmisioak aparteko azterketa bat merezi zuela ikusi genuen. Familiarteko harremanak tratamendu hau erabiltzeko gune aproposa izanik, zer neurritan erabiltzen den eta belaunaldi batetik bestera transmisioan egon diren aldaketak ikertzen ahalegindu gara.

Atal honetan joera orokorrak eta ideia solteak alde batera utzi eta metodo kuantitatiboan oinarritutako inkesta baten bitartez, ondorio argigarriak eskainiko lizkiguketan datuak eskuratzen ahalegindu gara. Horretarako, eta adituen aholkuari jarraituz, galdera gutxi batzuekin populazio handi bat hartu dugu, inkestaren fidagarritasuna bermatu ahal izateko.

Zumaiako Institutura eta Maria eta Jose ikastetxera jo ondoren, 360 neska-mutili galdekizun bat pasa genien, gelaz gela txandaka bete zezaten. Benetan eskertu beharrekoa da ikastetxeetako arduradun eta

irakasleek erakutsi zuten jarrera eta borondatea. Orriak jasotzearekin batera ikasle bakoitzari gutunazal bana eman genion, etxera eraman eta gurasoek beste galdekizun bat bete zezaten. Egun batzuk beranduago ikastetxeetatik pasa eta gurasoen erantzunak ere eskuratu ahal genituen. Horrela, astebeteren buruan 360 gaztetxo eta 305 gurasoren datuak jasotzeko modua izan genuen.

Datuak ordenagailuan sartu eta emaitzak ateratzea izan zen hurrengo eginkizuna, eta ondoren behar ziren oharrak egin eta ondorioak ateratzea. Horixe da hain zuzen hurrengo orrialdetan azalduko duguna, emaitza nagusiak ikusi eta iruzkinduz. Aldagai guztiak aintzat hartuz ateratako emaitzak aparteko taula batzuetan aurkituko dituzue, baina garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak galdera edo puntu horretan bertan aurreratzen saiatuko gara, ohar garrantzitsuenak eginez.


4.1. GAZTETXOEN EMAITZAK

Gure helburu nagusia guraso euskaldunen iritzia jasotzea baldin bazen ere, aurreko atalean jasotako iritzia osatu eta datu bidez kontrastatu nahi izan genituen. Horretarako hamabi galderaz osatutako galdekizuna pasa genien DBHko 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilei, ordu laurdeneko tarte batean erantzun zitzaten. Irakaslearekin batera, gu ere bertan egon ginen behar ziren azalpenak eman eta zalantzak argitzen laguntzeko. Azken ariketa gisa, gaztelaniazko bi esaldi eman zitzaizkien, hori hika neska edo mutil bati nola esango lioketen galdetuz. Ariketa hau hautazkoa zen, hau da, ez zen derrigorrez bete beharrekkoa, eta lortu nahi genuena zera zen, gaztetxoek sintaxizko debekuak errespetatzen zituzten ala ez jakitea, hots, forma alokutiboak ez dagokien tokian sartzen ote dituzten.


Zenbait galderatan, bestalde, ehunekoak ateratzerakoan aukera batzuk bakarrik hartu dira kontuan, hika egiten ez dutenen edota gaztelaniazko harremanak dituztenen datuak alde batera utzi eta HIKA/ZUKA bikotea garbiago alderatzearen.

Grafikoak emaitza orokorrekin atera baditugu ere, beste zenbait aldagai ere hartuko ditugu kontuan oharrak egiterakoan: ikasleen sexua, ikastetxea, herria eta gurasoren bat baserrikoa den ala ez. **Zumaiarrak ez**

diren ikasleak inguruko herrietakoak dira gehienak: **Aizarnazabalgoak, Arroakoak...** Aldagai hauei buruzko emaitza zehatzak eta portzentaiak aparteko taula batean ikus daitezke, puntu honen amaiera aldean.



Guztira, 360 neska-mutilen datuak jaso ditugu inkesta honetan.




Zumaiako Institutuan 10 gelatako erantzunak jaso dira: 3 DBH 1. mailakoak, beste 3 DBH 2. enekoak eta 4 gela DBH 3. mailakoak; guztira 232 ikasleren erantzunak. Aipagarria da hauetatik 36 lagun ez direla zumaiarrak, inguruko herrietakoak baizik.

Maria eta Jose ikastetxean guztira 128 erantzun jaso dira, maila bakoitzeko bina gelatan. Azpimarratzekoa da kanpoko ikasle oso gutxi dagoela ikastetxe honetan, 4 lagun besterik ez.

1. NOLA HITZ EGITEN DUZU HIKA?

Galdera honen bitartez beren ustez hikorako duten gaitasuna nolakoa den neur dezatela eskatu diegu. Honela, %30ak ez duela hika egiteko ohiturarik aitortu du eta benetan aipagarria da 100 laguneko mul-

tzo honetatik 75 neska direla; lehen datu honek —kopuruz behintzat— mutilak neska baino hikatzaileagoak direla adierazten digu, garbi. Beren ustez “ondo” egiten dutenak %28 badira ere, izugarrizko alde dago neska eta mutilen artean, mutilen artean %41 baita erantzun hau hautatu duena eta nesken artean %13. Zumaiarrak ez diren ikasleak bakarrik hartuz gero, portzentaia %50era igotzen da eta gurasoren bat baserritarra dutenek ere orokorrean baino gehiago hartu dute aukera hau, %45ak hain zuzen. Institutuko ikasleen artean %32k esan dute hika ondo egiten dutela, eta Maria eta Josekoen artean portzentaia %22ra jaisten da.




Argi utzi behar da erantzun hauen subjektibotasuna, beti ere beraiek duten iritzi edo ustean oinarritzen baitira. Beraz, erantzun hauek ez dute hiketaren kalitatea bermatzen, gerta bailiteke hika-zuka tartekaztea, forma jakin batzuk bakarrik erabiltzea eta askotan tratamendu neutrorra jotzea (lehenaldian, nor-nori-nork kasuetan...). Bestalde, “mutilekin bakarrik” aukeraren bitartez hitanoa tokara mugatzen dutenen portzentaia jakin nahi izan dugu, baina iruditzen zaigu honek ikasleen artean zalantza batzuk sortu zituela, esate baterako “ondo” baina “mutilekin bakarrik” egiten bazuten ez baitzekiten zer erantzun.

2. NON ETA ZEINEKIN HASI ZINEN HIKA?


NOIZ: 9

Azken kopuru hau ikasleek emandako zenbakien batezbestekoa da, baina esan beharra dago jende askok ez zuela galdera honi zegokion lerroa bete. Kopurua ez da asko aldatzen beste aldagaien arabera, baina aipagarriena zumaiarrak ez direnen kasua izan liteke, batezbesteko adina 7ra jaisten baita.





Gehienek hika eskolan edo eskolako lagunekin ikasi dutela erantzun dute, eta etxean edota kalean ikasi dutenek antzeko portzentaia era-kusten dituzte. Gurasoetako bat baserritarra dutenen kasuan, aipagarria da “Etxean” aukerak ikasleen %27 bildu duela.

3. GELAKO MUTILEKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?



Mutilei zuzentzerakoan hika egiteko joera handia dago, hika bakarrik ala bietara gehienetan horrela zuzentzen zaiela aitortzen baitu %65ek. “Hika” aukera egiten dutenak oro har %26 bada ere, galdera honetan ere alde handia dago mutil eta nesken erantzunak aparte aztertuz gero; izan ere, mutilen artean %43 dugin bitartean, nesken artean %5 da mutilei gehienbat hika zuzentzen zaiena. Zumaiarrak ez direnen artean ere —23 mutil eta 17 neska— hikorako joera handia dago, eta hauen artean %10a bakarrik da mutilei zuzentzerakoan batez ere zuka egiten duena. Gurasoren bat baserrikoa dutenen artean %40k hartu du lehen aukera, eta Institutuko ikasleek Maria eta Josekoek baino gehiago egiten dute hika kasu honetan, %33 batzuek %13 besteek, eta alde hori egoteko eragina duten faktoreen artean nagusietako bat kanpoko ikasleen hikazaletasuna izan daiteke.

4. ETA NESKEKIN?



Aurreko galderarekin alderatuta garbi ikusten da portzentaia izugarri jaisten dela solaskideak neskek direnean. Hika egiteko ohitura dutela esan duten 29 lagun horien artetik 24 mutilak dira eta neskek 5 bakarrik, nesken arteko %3 hain zuzen. Nesken artean neskei zuzendutakoan %70ek zuka egiteko joera duela eta %46k ez duela hika egiten jakinik, ezin dira hauek baino zenbaki askoz handiagoak espero. Bestalde, aipagarria da galdera honetan ez direla aldagaien arabera alde handi samar haiek errepikatzen: kanpotarren artean %8k egiten du hika, gurasoren bat baserrikoa dutenen artean %10ek, Institutuan %9k eta Maria eta Josen %5ek.



Berriz ere azpimarratu nahi genuke galdera hauen bitartez ez dela hitanoaren kalitatea neurtzen, eta horrela ezin dugu jakin mutilak neskei hika zuzentzerakoan tokako ala nokako formak erabiltzen dituzten, aurreko atalean ikusitako inkestan zenbait mutilek neskei toka egiteko ohitura zutela ondorioztatu baikenuen.

Eskolako ohiturak alde batera utzirik, etxeko giroan tratamenduei dagokienez zer joera dauden aztertzen ahaleginduko gara jarraian. Arestian aipatu bezala, gaztelaniazko harremanak ez dira kontuan hartu ehunekoak ateratzeko orduan. Bestalde, aintzat hartu behar da ikasle guztiek D ereduan ikasi arren, askok gurasoak —aita, ama ala biak— erdaldunak dituztela.



5. ANAI(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?

Anaiarekin —edo anaiekin— euskaraz egiten dutenen artean zuka egiten dutenak gehiago diren arren, ez dira gutxi hika bakarrik egiten

dutenak, eta hauei bietara egiten dutenak gehitzen badizkiegu —gutxiago ala gehiago— anaiekin hika egiten dutenak %54 direla ikusten dugu. Arestiko galderetan bezalaxe, alde handia dago mutilen eta nesken ehunekoak aparte hartuz gero: mutiletan %42k “hika” eta %30ek “zuka” erantzun duten bitartean, nesketan %11k bakarrik erantzun du “hika” eta %62k “zuka”. Zumaiarrak ez direnen artean —Arroa eta Aizarnazabalgoak, gehienak— hika egiten dutenak nagusi dira, %59, eta zuka aritzen direnak %9 besterik ez. Gurasoren bat baserrikoa dutenen artean ere anaiari hika egiten diotenen portzentaia orokorra baino handiagoa da, %41ekoa hain zuzen.





6. ETA ARREB(AR)EKIN-AHIZP(AR)EKIN?





Aurreko galderako erantzunekin alderatuta hizarako joera nabarmen jaisten dela erraz ikus daiteke; ahizpen arteko erlazioan, gainera, hikako aukera %7ra jaisten da. Kanpoko ikasleen artean etxean zumaiarrak baino hikatzaileagoak direla esan daiteke, arreba edo ahizpari zuzentzerakoan %30ek egiten baitute hika eta beste hainbestek bietara. Gurasoren bat baserrikoa bada, hika edo bietara aritzeko ohitura ere handiagoa da, %19 eta %30ekoa hain zuzen ere.

7. AITAK NOLA HITZ EGITEN DIZU?



Aita seme-alabei zuzentzerakoan zuka aritzen direla adierazten dute datuek, baina adierazgarria da %18k semeei hika egiten dien bitartean alabei hika zuzentzen direnak %8 besterik ez direla. Zumaiarrak ez direnen aiten kasuan portzentaia %22ra igotzen da, baina gurasoetako bat baserrikoa dutenak hartuta ez dago alderik, hika aritzen diren aiten portzentaia %14koa baita, orokorraren berdin-berdina.

8. ETA AMAK?





Argi ikusten da amek aitek baino joera txikiagoa dutela hiketarako, eta oso adierazgarria da semea ala alaba izan portzentaia ez direla ia aldatzen, %5ek hika eta %80 inguruk zuka. Kanpokoen artean hikako portzentaia %14ra igotzen da, baina aurreko galderan gertatu bezala, gurasoetako bat baserrikoa dutenen kasuan amen aldetik ez da hikarako joera handiagorik nabari.



9. AITONAK (AITAREN AITAK) NOLA EGITEN DIZU?

Datu esanguratsua da aitonek —aiten aitek— aitek beraiek baino hika gehiago egitea gaztetxoei, baina aitona-amonen datu hauek kontu

handiz hartu behar dira, askotan “ez daukat” aukera hartu denez portzentaia kopuru txiki batzuetatik atera baitira. Datu hauetatik, ordea, esan daiteke gurasoetan ikusten ziren zenbait joera errepikatzen direla, esaterako solaskidea —kasu honetan biloba— neska izanik hiketarako joera erdira jaisten dela, %41 mutilak badira, %17 nesken kasuan.





10. ETA AMONAK (AITAREN AMAK)?




Aurreko galderan esandakoa errepika dezakegu, baina portzentaia txikiagoak direlarik. Biloba mutila izanik amonen artean %15ek egiten du hika eta biloba neska bada %11k, beraz aldea ez da aurrekoan bezain nabarmena.

11. ETA BESTE AITONAK (AMAREN AITAK)?




Aiten aldeko aitonekin alderatuz gero portzentaia hauek dezente baxuagoak direla ikus dezakegu eta bereziki baxua da biloba neskekin hika egiten duten aitonen portzentaia, %7akoa hain zuzen.

12. ETA BESTE AMONAK (AMAREN AMAK)?



Erantzun hauetan ere aiten aldekoak baino portzentaia baxuagoak ageri dira, batez ere biloba neskei hika zuzentzeko ohitura urriak (%3k) eragindakoa.

MENPEKO PERPAUSETAN ALOKUTIBOA



Galdera honen bitartez ikasleek syntaxizko debekuak errespetatzen dituzten ala ez jakin nahi izan dugu, eta horretarako bi esaldi eman genizkien, esaldi horiek hika (toka eta noka) nola esango lituzketen galdetuz:

*Mikel me ha dicho que vendrá tarde
Cuando venga Josune dile que me llame*

Esate baterako berandu etorriko dekela edo dukela jarri dutenean menpeko perpausetan alokutiboa erabiltzen duela kontsideratu dugu, BAI aukera, beraz. Bestetik, dela edo dala jarri dutenak EZ aukeraren

barruan sartu ditugu. NAHASIAN aukeraren barruan, berriz, bi multzo sartu ditugu: toka egitean alokutiboa sartzen dutenak, baina noka ez (dekenian-danian); eta bestetik, esaldi batean sartzen dutenak eta beste ez (dekela-danian, dala-dekenian...). Ariketa hau egitea hautazkoa zenez, guztira 76 lagunek erabaki dute ez egitea.

Emaitzak aztertuz, gehiengoak ez dituela debekuak errespetatzen ikusten dugu, eta gainera portzentaia ez dira asko aldatzen lehen aztertu ditugun beste aldagaien arabera. Galdera honek bai adierazten duela gatzetxoek darabilten hitanoaren kalitatearen maila, edota ezau-garri garrantzitsu bat erakusten digute, gutxienez.

Ondorio nagusiak

Orain arteko datuak ikusi eta aztertu ondoren, honako ondorio nagusiak atera ditzakegu

- Hitanoa gatzetxoaren artean erroturik dagoen ohitura bat da, batez ere mutilen artean.
- Zumaiarrak ez diren ikasleek bertakoek baino joera handiagoa dute hiketarako, bai eskolako lagunekin eta baita etxeko senideekin ere, eta arrazoi hau izan daiteke Institutuan Maria eta Josen baino hika gehiago egitea eragiten duen faktore nagusienetakoa.
- Etxean ikasi dutenak baino askoz gehiago dira hitanoa eskolan lagunekin ikasi dutenak. Gatzetxoaren kasuan behintzat, lagunarteko tratamendua gehiago da familiarterkoa baino.
- Solaskidea neska denean —berdin gelakidea edota arreba-ahizpa— hiketarako joera oso txikia da.
- Gurasoren bat baserrikoa duten ikasleek hika aritzeko ohitura handiago dute besteek baino. Hala ere, guraso hauek seme-alabengana zuzentzean ez dute hika gainerakoek baino proportzio handiagoan erabiltzen, emaitza hauen arabera.
- Aiten kasuan, semeari edota alabari izan, asko aldatzen da hiketarako ohitura, semeari gehiago hitz egiten baitzaio hika alabari baino.

→ Amen kasuan, berriz, gutxiago egiten zaie seme-alabei hika, baina sexuaren araberako alderik ez da nabari.

→ Aiton-amonon kasuan, gizonetzkoek hika egiteko joera handiagoa dute emakumeek baino, eta kasu guztietan biloba mutilari neskari baino gehiago egiten zaio hika.

→ Ikasle gehienek ez dituzte syntaxizko debekuak errespetatzen eta erabilitako formen kalitatea oso apala da.

Zk.	Aukerak	Guztira	Mutilak	Neskak	Institut.	Mª Jose	Zum.	Kanp.	Gur. Ba	Gur. Ka									
0	Guztira	360	196	164	232	128	320	40	100	260									
	Gizonezk.	196	54	196	100	0	0	129	56	67	52	173	54	23	58	61	61	135	52
	Emakum.	164	46	0	0	164	100	103	44	61	48	147	46	17	43	39	39	125	48
	Institutua	232	64	129	66	103	63	232	100	0	0	196	61	36	90	72	72	160	62
	Mª eta Jose	128	36	67	34	61	37	0	0	128	100	124	39	4	10	28	28	100	38
1	Ondo	102	28	80	41	22	13	74	32	28	22	82	26	20	50	45	45	57	22
	Erdizka	125	35	64	33	61	37	77	33	48	38	114	36	11	28	28	28	97	37
	Mutilekin	33	9	27	14	6	4	26	11	7	5	26	8	7	18	16	16	17	7
	Hika ez	100	28	25	13	75	46	55	24	45	35	98	31	2	5	11	11	89	34
2	Eskolan	154	62	110	65	44	55	110	64	44	59	133	62	21	60	51	59	103	64
	Etxean	41	17	22	13	19	24	28	16	13	17	34	16	7	20	23	27	18	11
	Kalean	53	21	36	21	17	21	35	20	18	24	46	22	7	20	12	14	41	25
	Hika ez	109		28		81		58		51		104		5		14		95	
	Noiz	9		9		9		9		9		9		7		8		9	
3	Hika	93	26	85	43	8	5	77	33	16	13	76	24	17	43	40	40	53	20
	Zuka	126	35	34	17	92	56	65	28	61	48	122	38	4	10	20	20	106	41
	Bietara	141	39	77	39	64	39	90	39	51	40	122	38	19	48	40	40	101	39
4	Hika	29	8	24	12	5	3	22	9	7	5	26	8	3	8	10	10	19	7
	Zuka	205	57	90	46	115	70	119	51	86	67	184	58	21	53	49	49	156	60
	Bietara	126	35	82	42	44	27	91	39	35	27	110	34	16	40	41	41	85	33
5	Hika	45	17	36	42	9	11	28	27	17	27	32	14	13	59	23	41	22	20
	Zuka	76	46	26	30	50	62	38	37	38	59	74	32	2	9	18	32	58	52
	Bietara	46	28	24	28	22	27	37	36	9	14	39	54	7	32	15	27	31	28
	Erderaz	63		33		30		38		25		60		3		1		62	
	Ez daukat	130		77		53		91		39		115		15		43		87	

Zk.	Aukerak	Guztira	Mutilak	Neskak	Institut.	Mª Jose	Zum.	Kanp.	Gur. Ba	Gur. Ka									
6	Hika	20	13	15	18	5	7	13	13	7	12	13	10	7	30	13	19	7	8
	Zuka	101	64	52	61	49	66	55	54	46	81	92	68	9	39	34	51	67	73
	Bietara	38	24	18	21	20	27	34	33	4	7	31	23	7	30	20	30	18	20
	Erderaz	59		32		27		33		26		59		0		1		58	
7	Ez daukat	142		79		63		97		45		125		17		32		110	
	Hika	28	14	21	18	7	8	20	14	8	12	20	12	8	22	13	14	15	13
	Zuka	119	57	56	48	63	69	79	57	40	59	102	60	17	47	50	53	69	61
	Bietara	60	29	39	34	21	23	40	29	20	29	49	28	11	31	31	33	29	26
Erderaz	148		76		72		88		60		145		3		6		142		
8	Ez daukat	5		4		1		5		0		4		1		0		5	
	Hika	11	5	6	5	5	5	8	5	3	4	6	3	5	14	6	6	5	4
	Zuka	174	79	99	80	75	79	116	77	58	84	150	82	24	67	69	70	105	87
	Bietara	34	16	19	15	15	16	26	17	8	12	27	15	7	19	23	24	11	9
Erderaz	138		71		67		80		58		135		3		2		136		
9	Ez daukat	3		1		2		2		1		2		1		0		3	
	Hika	32	30	24	41	8	17	20	29	12	32	27	31	5	28	21	39	11	21
	Zuka	59	56	26	44	33	70	37	54	22	59	50	57	9	50	23	43	36	69
	Bietara	15	14	9	15	6	13	12	17	3	8	11	12	4	22	10	19	5	10
Erderaz	96		53		43		54		42		95		1		4		92		
10	Ez daukat	158		84		74		109		49		137		21		42		116	
	Hika	19	13	13	15	6	11	15	15	4	9	16	14	3	11	13	20	6	8
	Zuka	98	69	56	65	42	75	64	66	34	76	79	69	19	70	39	61	59	76
	Bietara	25	18	17	20	8	14	18	19	7	16	20	17	5	19	12	19	13	17
Erderaz	128		70		58		79		49		126		2		4		124		
11	Ez daukat	90		40		50		56		34		79		11		32		58	
	Hika	18	18	15	27	3	7	14	19	4	15	15	18	3	19	12	27	6	11
	Zuka	65	65	31	56	34	76	46	63	19	70	56	67	9	56	24	55	41	73
	Bietara	17	17	9	16	8	18	13	18	4	15	13	15	4	25	8	18	9	16
Erderaz	95		51		44		54		41		93		2		0		95		
12	Ez daukat	164		90		74		105		59		142		22		56		108	
	Hika	12	8	10	12	2	3	9	9	3	8	11	9	1	4	7	11	5	6
	Zuka	111	78	63	75	48	83	80	78	31	79	90	77	21	84	45	74	66	82
	Bietara	19	13	11	13	8	14	14	14	5	13	16	14	3	12	9	15	10	12
	Erderaz	122		66		56		78		44		120		2		1		121	
Ez daukat	96		46		50		51		45		83		13		38		58		


Zk.	Aukerak	Guztira		Mutilak		Nesakak		Institit.		M ^o Jose		Zum.		Kamp.		Gur. Ba		Gur. Ka	
	Bai	154	34	96	59	58	48	106	57	48	49	135	55	19	49	55	59	99	52
Men	Ez	78	27	36	22	42	34	49	26	29	30	65	27	13	33	23	25	55	29
	Nahasian	52	18	30	19	22	18	32	17	20	21	45	18	7	18	15	16	37	19
	Ez da bete	76		34		42		45		31		75		1		7		69	

4.2. GURASOEN EMAITZAK

Gurasoei galdekizun bat helarazi zitzaion, orriaren alde batean aitarren datuak eta bestean amarenak eskatuz. Erabilitako metodologiak, galderak ikasleen bitartez bideratzeak, zehazki, izan ditu bere alde txarrak ere. Izan ere, ez du aukerarik ematen zalantzak argitzeko eta ondorioz zenbait gaizkiulertze sumatu ditugu. Esate baterako, “Bietara” erantzuna “hika eta zuka” bezala ulertu beharrean “euskaraz eta erderaz” gisa hartzea, edota gurasoen (gaztetxoen aitona-amonen) datuak jarri behar ziren tokian norberarenak jartzea. Behin akats hauek topatu eta identifikatu ondoren, ordea, zuzentzeko bidea aurkitu dugu gehienetan.


Aurreko puntuan 360 gaztetxoren erantzunak aztertu ditugunez, teorian 700 inguru gurasoren erantzunak jasotzeko aukera zegoen. Baina euskaraz zekiten gurasoei zuzendutako galdekizuna izanik, eta gaztetxoen inkestan seme-alabei gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkien 286 lagun zeudela aintzat harturik, gehienez 425 erantzun inguru jasotzeko bidea zegoela ikusi genuen. Azkenean, 305 erantzun jaso genituen, erantzuteko aukera zutenen %70 hain zuzen ere. Eta ez genuen askoz gehiago espero, egia esan, erabilitako bidea kontuan hartuta —gutun batzuk etxera iritsi ere ez zirela egingo jakinik, eta epea egun gutxi batzuetakoa izanik— zaila zelako hori baino gehiago jasotzea.

Azter ditzagun orain emaitzak, galderaz galdera. Grafikoak emaitza orokorrekin atera baditugu ere, oharrak egiterakoan beste zenbait aldagai ere hartuko ditugu kontuan, hala nola, gizona ala emakumea den, baserrikoa ala kalekoa eta zumaiarra den ala ez. Aldagai hauen arabera ateratako emaitza eta portzentaia guztiak 12. galderaren ondoren dagoen taulan jaso dira.




■ GIZONEZKOAK %50
□ EMAKUMEZKOAK %50

Gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua ia bera da.



■ BASERRIKOA BAI %43
□ BASERRIKOA EZ %57



Jaso ditugun erantzunen artean gehienak kaletarrak dira, baina baserrian jaiotakoen portzentaia ere nahiko altua da.





■ AITA BASERRIKOA BAI %55
□ AITA BASERRIKOA EZ %45

Aita baserrikoa dutenen portzentaia, beraz, handiago da kalekoa dutenena baino.

Ama baserrikoa dutenak ere gehiago dira bestelakoak baino.





1. SEMEARI NOLA HITZ EGITEN DIOZU?



Zukarako joera nabarmen nagusitzen dela ikus dezakegu, baina hikaren aukeran komenigarria da gizonen eta emakumeen arteko bereizketa egitea, gizonen kasuan %15ekoa den bitartean emakumeen %3ra besterik ez delako iristen. “Hika” eta “bietara” aukeretan, baserrikoen portzentaiak altuxeagoak dira kaletarrenak baino, eta Zumaiian jaiotako gurasoen datuak bakarrik hartuta —107 lagun, 56 gizon eta 51 emakume—, orokorrean baino hizarako joera zertxobait handiagoa ikusten da.

2. ETA ALABARI?





Emaitzek erakusten dute alabari semeari baino nekezago egiten zaiola hika, baina emakumeen kasuan semeekin azaltzen zen portzentaia bera ageri da, %3koa hain zuzen, gizonenean %9koa den bitartean. Baserrikoen artean “bietara” egiteko joera handixeagoa dago, %23koa zehazki.

3. HIKA EGITEN BADIEZU, ZENBAT URTE ZITUZTENETIK (BATEZBESTEKOA): 8

Batezbesteko hau ia bera da aldagai guztietan ere, baina azpimarratu beharrekoa da galdera hau ez dutela hika aritzen diren guztiek bete.

4. ZUKA EGITEN BADIEZU, ZERGATIK EZ HIKA?




Gehiengoak “ohitura kontua” aipatzen du zuka egiteko arrazoi gisa, eta hurrengo aukera ere, “niri hala egiten zidatelako”, oso antzekoa da, hori ere ohitura kontua izan baitaiteke. Hitanoa ez dutela menderatzen esaten dutenen artean, portzentaia asko jaisten da gizonen eta baserrikoen kasuan. Azkenik, “beste arrazoiren bat” hautatzen zutenei, arrazoa zehazteko eskatzen genien, galdekizunaren amaierako oharretan.

Erantzun gehienetan antzeko tonua nabari da, eta zuka hitz egiteko era egokiagoa, errespetagarriagoa, goxoagoa dela argudiatzen dute. Batek baino gehiagok hika ez zaiola batere gustatzen aitortu digu, eta elkarren errespetuagatik eta edukazioagatik nahiago dutela zuka egitea.


5. ANAI(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?

Gurasoek hiketarako ohitura eduki badaukatela ikusten da, eta horren adierazgarria da gehienek anaiarekiko harremanetan hika egitea.

Gizonen eta emakumeen artean aldea badagoen arren, ez da hasiera pen-
tsa zitekeena bezain handia, gizonen artean %60 anaiei hika zuzentzen
zaie eta emakumeen artean %48 da horrela jokatzeko duena. Baserrikoen
eta kalekoen artean aldea handiagoa da, %68 - %41. Bestalde, guraso
zumaiarrak bakarrik hartuta portzentaia orokorra baino dezente baxua-
goa ageri da, %40 hain zuzen.



6. ARREB(AR)EKIN-AHIZP(AR)EKIN NOLA HITZ EGITEN DUZU?




Portzentaia anaien kasuan baino txikiagoak dira, baina noketaren
izaera markatua gogoan hartuta, esanguratsua da gurasoen ia erdiak ar-
ba edo ahizparekin hika aritzea. Baserrikoen kasuan, gainera, portzentaia
%57ra iristen da, kalekoena %32koa den bitartean. Aurreko galderan
bezalaxe, guraso zumaiarren portzentaia nahiko baxua da, %36koa.


7. AITAK NOLA HITZ EGITEN DIZU?

Anai-arreben arteko erlazioetan ez bezala, honetan zuka nagusi dela
ikusten da. Bestalde, alde handia dago aita-semea eta aita-alaba biko-

teen harremanetan, lehenbizikoan hika egiteko ohitura %43koa den
bitartean bigarrenetan %26koa besterik ez delako. Baserriko eta kale-
koen artean ere alde handia dago: %44 - %28. Zumaiarren portzentaia,
azkenik, orokorra baino baxuagoa da, %27koa.




8. ETA AMAK?



Aurreko galderari egindako ohar beretsuak egin daitezke hemen ere,
baina kasu guztietan portzentaia baxuagoak direlarik. Gizonak %30,
emakumeak %16, baserrikoak %27, kalekoak %20 eta zumaiarrak
%21.


Aiton-amonei buruzko emaitzak ikusten hasi aurretik pare bat ohar
egin nahi genituzke. Batetik, guraso asko dira aiton-amonen bat edo
batzuk ezagutu ez zituztenak, eta horregatik portzentaia kopuru txiki
batzuetatik ateratzen dira. Bestetik, joera pixka bat zehatzago definitu
nahian, bi erantzun bakarrik eman genizkien aukeran, “hika” eta
“zuka”, “bietara” baztertzuz.

9. AITONAK (AITAREN AITAK) NOLA EGITEN DIZU/ZIZUN?



Zuka erraz nagusitzen dela ikusirik, bestelako aldagaiei begiratuta alde handia antzeman daiteke gizon eta emakumeen artean; hau da, aitona-biloba mutila bikotean aitonen %34k hika egiten duen bitartean, biloba neska den kasuetan portzentaia %13ra jaisten da. Baserriko eta kalekoen artean ere ehunekoak asko aldatzen dira: %33 - %16.


10. ETA AMONAK (AITAREN AMAK)?




Aitonekin alderatuta zukaren nagusitasuna are handiagoa da, eta biloba neskei hika egiten dieten amonen portzentaia berriz, oso txikia, %6koa.

11. ETA BESTE AITONAK (AMAREN AITAK)?

Aiten aldeko aitonen emaitzekiko oso antzekoak direnez, han egin-dako oharrak baliagarri dira galdera honetarako ere. Ikasleen inkestan aitaren eta amaren aldeko aitonen artean zegoen alderik ez da antzematzen hemen.



12. ETA BESTE AMONAK (AMAREN AMAK)?



Aiten aldeko emaitzetan baino zertxobait gehiago dira zukara lerra-tzen direnak, baina dagoen alde txikiak ez du aparteko iruzkinik merezi.

Zk.	Aukerak	Guztira		Gizonak		Emakum.		Baserr.		Kalekoak		Zumaiar.	
0	Guztira	305		152		153		132		173		107	
	Gizonezk.	152	50	152	100	0	0	70	53	82	47	56	52
	Emakum.	153	50	0	0	153	100	62	47	91	53	51	48
	Baserrikoa	132	43	70	46	62	41	132	100	0	0	27	25
	Kalekoa	173	57	82	54	91	59	0	0	173	100	80	75
	Aita bas.	169	55	87	57	82	54	123	93	46	27	44	41
	Aita kal.	136	45	65	43	71	46	9	7	127	73	63	59
	Ama bas.	178	58	92	61	86	56	122	92	56	32	48	45
Ama kal.	127	42	60	39	67	44	10	8	117	68	59	55	
1	Hika	24	9	20	15	4	3	12	11	12	8	10	11
	Zuka	173	67	72	55	101	78	67	59	106	72	61	66
	Bietara	63	24	38	29	25	19	34	30	29	20	22	24
	Ez daukat	45		22		23		19		26		14	

Zk.	Aukerak	Guztira		Gizonak		Emakum.		Baserr.		Kalekoak		Zumaiar.	
2	Hika	15	6	11	9	4	3	7	7	8	6	5	6
	Zuka	191	78	88	72	103	84	72	71	119	83	67	78
	Bietara	40	16	24	20	16	13	23	23	17	12	14	16
	Ez daukat	57		28		29		29		28		20	
3	Noiztik	8		8		9		9		8		8	
4	Ohitura	148	58	77	64	71	53	76	70	72	49	53	60
	Niri hala	66	26	29	24	37	27	22	20	44	30	26	29
	Mender. ez	22	8	5	4	17	13	4	4	18	12	5	6
	Beste arr.	20	8	10	8	10	7	7	6	13	9	4	5
5	Hika	131	54	74	60	57	48	80	68	51	41	35	40
	Zuka	85	35	36	29	49	41	26	22	59	47	42	48
	Bietara	27	11	13	11	14	12	12	10	15	12	10	11
	Erderaz	25		11		14		2		23		7	
Ez daukat	35		16		19		11		24		13		
6	Hika	103	45	56	48	47	42	67	57	36	32	28	36
	Zuka	93	41	45	39	48	43	29	25	64	58	41	53
	Bietara	32	14	15	13	17	15	21	18	11	10	8	10
	Erderaz	27		12		15		3		24		8	
Ez daukat	49		23		26		12		37		22		
7	Hika	90	35	59	43	31	26	52	44	38	28	26	27
	Zuka	145	57	64	47	81	69	52	44	93	68	65	68
	Bietara	19	7	13	10	6	5	14	12	5	4	4	4
	Erderaz	23		5		18		2		21		4	
Ez daukat	27		10		17		12		15		8		
8	Hika	60	23	40	30	20	16	31	27	29	20	20	21
	Zuka	177	69	81	61	96	77	71	63	106	74	70	74
	Bietara	20	8	12	9	8	6	11	10	9	6	4	4
	Erderaz	26		11		15		3		23		8	
Ez daukat	35		16		19		11		24		13		
9	Hika	34	24	25	34	9	13	21	33	13	16	13	23
	Zuka	110	76	48	66	62	87	42	67	68	84	44	77
	Erderaz	19		7		12		3		16		4	
	Ez ezagutu	141		71		70		66		75		46	
10	Hika	24	15	19	23	5	6	14	19	10	11	7	11
	Zuka	138	85	64	77	74	94	60	81	78	89	54	89
	Erderaz	22		10		12		3		19		7	
	Ez ezagutu	120		58		62		55		65		39	


Zk.	Aukerak	Guztira		Gizonak		Emakum.		Baserr.		Kalekoak		Zumaiar.	
11	Hika	31	23	22	31	9	14	17	33	14	16	9	16
	Zuka	105	77	49	69	56	86	34	67	71	84	46	84
	Erderaz	15		8		7		1		14		4	
	Ez ezagutu	153		72		81		80		73		48	
12	Hika	20	12	13	16	7	8	10	15	10	10	9	15
	Zuka	143	88	67	84	76	92	55	85	88	90	50	85
	Erderaz	20		9		11		1		19		5	
	Ez ezagutu	121		62		59		66		55		43	

Transmisioaren galera

Hurrengo taularen bitartez belaunaldi batetik bestera transmisioan egon den galera aztertzen saiatuko gara. Horretarako, honako datu hauek erkatu ditugu: batetik, inkesta hau bete duten gurasoek seme-alabei nola egiten dieten; eta bestetik, gurasoen gurasoek euren seme-alabei nola egiten dieten/zieten.

Konparaketa honen helburua ez da galera zehazki kuantifikatzea, aintzat hartu behar baita populazioa desberdina dela —hainbat gurasori gatzelaniaz zuzentzen zaizkie eta beraiek seme-alabei euskaraz— eta gainera ez baita ahaztu behar seme-alabek 15 urte baino gutxiago dituztela eta behin-betiko tratamendua finkatu gabe egon daitekeela; esate baterako, orain bietarakoa dena gero hikakoa bihur liteke.

	HIKA		ZUKA		BIETARA	
	Lehen	Orain	Lehen	Orain	Lehen	Orain
Aitak semeari	%43	%15	%47	%55	%10	%29
Aitak alabari	%26	%9	%69	%72	%5	%20
Amak semeari	%30	%3	%61	%78	%9	%19
Amak alabari	%16	%3	%77	%84	%6	%13



Azken belaunaldiarekiko transmisioan, “orain” izenburupean azaltzen den horretan, erlazio-mota guztietan hikaren kasuan beherakada nabarmena egon dela argi ikus daiteke. Nolabait, esan daiteke galera handia egon dela belaunaldi batetik besterako transmisioan, baina grafikoak ageri duena baino txikiagoa izan daiteke galera, “bietara” aukera hainbeste hazteak tratamendua erabat finkatu gabe dagoela adieraz baitezake.

Ondorio nagusiak

Datu, grafiko eta taula guztiak aztertu ondoren, honako ondorio nagusiak aurrera ditzakegu:

- Gurasoek seme-alabei hika egiteko ohitura handirik ez dute, are eta gutxiago alabari zuzentzerakoan.
- Gizonek emakumeek baino gehixeago egiten diete hika beren seme-alabei, baina ez dago alde handirik baserrikoen eta kalekoen artean, baserrikoek bietara egiteko duten joera handiagoa ez bada.
- Seme-alabari hika egiten hasteko batezbesteko adinak —8 urte— haur oso txikiei ia erabat zuka egiten zaiela erakusten du (*).

- Seme-alabei zuka egiten dieten gehienek ohitura kontuagatik jokatzen dute horrela eta batzuek agertutako iritziek hiketaren alde ez dagoen jende asko dagoela erakusten dute.
- Anai-arreben arteko harremanetan hitanoa nagusitzen da eta familiarterako tratamendua dela frogatzen da.
- Gurasoen aita eta amek zuka egiten diete gehienbat hauei, are gehiago solaskidea alaba denean. Aitek hiketarako joera handiagoa dute amek baino.
- Aitona-amonei buruz ere gauza bera esan daiteke, baina azpimarragarria da biloba neskei zer gutxi egiten zaien hika.
- Baserrikoen artean familia-giroan hiketarako joera askoz handiagoa dago kalekoen artean baino, eta zumaiarren artean gutxiago egiten da hika etxean, kanpokoan artean baino.
- Eta ondorio nagusia: belaunaldi batetik besterako transmisioan galera garrantzitsua egon da, hau da, azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino askoz gutxiago transmititu da. Nolanahi ere, baina tratamendua finkatu gabe egonik, egoerak pixka bat hobera egin dezake oraindik ere.

(*) ARGIA astekariaren 1687 zenbakian argitaratutako artikulu batean, HAUR HIZKERA gaitzat hartuta honakoa adierazi zuen Jose Inazio Ansorenak: “Haurrari beti zuka egiten zaio. Gaur egun zenbait lekutan zabaldu diren hiketa ohiturak bestelakoak izan arren, tradizioan zazpi-zortzi urte arte (beti ere haurraren arabera) ez da erabili izan”.

5. ADITZ-TAULAK

Aditzak jasotzeko orduan bi multzo bereizi ditugu: Zumaiakoak batetik, eta Oikiakoak bestetik. Hasiera batean arrantza-girokoa eta kalekoa bereiztea aurreikusi bazen ere, Zumaian bereizketa hori egiterik ez dagoela ohartu gara. Aditzen aldaera desberdinak badaude, leku-koaren adinaren eta bizitokiaren arabera hainbat gauza aldatzen dira (pluralgilea, formen ebakera, etab.), baina “corpus” bereko aldaerak besterik ez dira, bi edo forma gehiago erabiltzen diren seinale.

Bestalde, ez dago “baserriko” hitanorik. Herriko formatatik alden-tzen dira baserrietako formak, -TX- soinua askoz gutxiago dago, baina baserrien artean ez dago batasunik. Aintzat hartu behar da dispertsio handia dagoela, auzoak elkarrengandik urrun, zenbait baserri beste herrietatik gertu eta gainera, etxe horietan ia beti egongo dela kanpotik etorritako norbait.

Horregatik, nolabaiteko entitatearen zuen gune bakarra Oikiakoa iruditu zitzaigun, bai kopuruz bai nortasunez. Eta bertako formak dira Zumaiakoez gain baserrietan jaso ditugun bakarrak. Taula guztiak ez errepikatzearren, Zumaiako formen albo batean jarri ditugu, eta batik bat zertan bereizten diren zehaztuko dugu.

Taulen aukeraketa

Jarraian datozen tauletan ez dira kategoria guztietako aditzak jaso. Batetik, zenbait kategoriatan ez dago forma alokutiborik, subjuntiboan kasu, eta beste hainbat kategoria berriz, ia ez dira erabiltzen, hika egiterakoan.

Soiltze moduko bat egon da, eta adibidez ahalerako formak apenas erabiltzen diren, nominalizazioaren bidez egiten baitira: “ekarri dezakek” esan ordez “ekartzia badakak” esan ohi da. Aditz Laguntzailetan NOR-NORI kasuan “gu hari joan gatzazkio” esateko “gu harena jun gea” erabiltzen da. Erabiltzen den forma bakanetako bat LEIKEK/N da, esate baterako honelako esaldietan: “Getaiko bidetik pasa leikek”.

Laguntzailetan NOR-NORI-NORKeko zenbait forma eta Trinkoetan lehenaldikoak jasotzeko galdera asko eta era askotakoak egin behar izan dira sarritan. Formak biltzeko metodologiari dagokionez, lehenik eta behin elkarrizketa edota kontakizun batetik formak ahalik eta era “naturalenean” jasotzen ahalegindu gara; ondoren, forma jakin batzuk lortzeko bukatu gabeko esaldiak erabili ditugu (nik amai erregalua erosi... ZIONAT); eta azkenik, zenbait kasutan gaztelaniazko esaldiak eman dizkiegu, euskarazko ordainak eman zitzaizten.

Taulak irakurtzerakoan kontuan hartu behar da letra *etzanez* daudena Euskaltzaindiak onartutako formak direla, eta **beltzezkoak**, berriz, guk jaso ditugunak. Parentesi arteko zatiek () zera adierazi nahi dute: batzuetan esaten direla eta besteetan ez.

5.1. Zumaiako aditz-formak

Honen atzetik datozen orrialdeetan ageri diren tauletan Zumaian gehien erabiltzen diren formak bildu ditugu. Oinarriztat **Bähr**-ek 1925 inguruan jasotakoak hartu ditugu —gehienak Yrizarren liburuan bildutakoak— eta lekukoek eman dizkiguten formekin kontrastatu eta osatu ditugu, batik bat **Irene Azkue** eta **Karlos Aperribairekin** izandako elkarrizketetan jasotakoekin. Beste lekukoek emandako formak ere garrantzitsuak izan dira, ordea, batez ere aldaera desberdinak jaso eta aztertu ahal izateko. Hona guztien zerrenda:

Lekukoak

Gerhard Bähr (Yrizar-en liburutik)

Irene Azkue

Karlos Aperribai

Angel Osa

Arritxu Zubia

Bakarne Gorostola

Itziar Treku

Irene Yeregi

Jontxu Altzibar

Jexux Gorostola

Krixpin Arrizabalaga

Karmen Zendoia

Miren Aperribai

Maria Zendoia

Forma hauetan ikusi ditugun **ezaugarri nagusiak** hauek dira:

- Bi pluralgile erabiltzen dira, -IT- (zaharra) eta XKI (berriagoa)
- DX grafiarekin islatu nahi izan dugu zumaier petoen ebakera ahos-
tun berezia (didxo). Ez da joera orokorra, ordea, gazte jendearen
artean -Y- ebakera nagusitu baita.
- NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK nahastu egiten dira askotan
eta “guk hiri ikusi diu” errazago jaso da “guk hi ikusi haugu” baino.
Nolanahi ere, tauletan forma “zuzenak” bakarrik jaso dira.
- Forma bikoitz asko jaso ditugu, -A- eta -I- bokalen bidez bakarrik
bereizten direnak: natxian/nitxian, gitxitoztian/gatxitoztian, gitxu-
nan/gatxunan... Emakumeek joera handiagoa dute A-dun formak
erabiltzeko, eta gizonezkoek, aldiz, I-dunak.
- Laguntzailetan NOR-NORI kasuan erroko bokala -I- da, eta forma
hauek dira inguruko herrietakoetatik gehien aldentzen direnak:
zikak, zikunan...
- -ITT- /-TX- alternantzia ere hor dago. Batzuetan gaittun, ittunan... beza-
lako forma palatalizatuak jaso dira, baina baita gatxuk, itxunan... ere.

5.2. Oikiako aditz-formak

Ez da erraza izan forma hauek biltzeko lekuko egokiak aurkitzea. Izan ere, baserrietara inguruetako jende asko ezkontzen da eta zaila da gurasoak biak oikiarrak zituen lekukoak topatzea. Oinarriztat **Dolores Ugartek** emandako formak hartu ditugu, eta Manuel eta Arantxa Ugarte anai-arreben laguntza ere izan genuen biltze-lan horretan. Forma jakin batzuk kontrastatzeko, berriz, Brigida Ibarbia eta Eustakio Alberdiren gana jo dugu.

Bestalde, paradigma osoak biltzen ez diren arren, Yrizarren libu-
ruan R.M. Azkuek mende hasieran **Mikaela Zunzunegi** lekukoari
bildutako zenbait forma ere aztertu ditugu, eta baliagarriak izan
zaizkigu zenbait forma bikoiztu jaso eta hainbat ezaugarri kontu-
ratzeko.

Forma hauetan ikusi ditugun **ezaugarri nagusiak** hauek dira:

- Pluralgile bakarra ageri da, XKI delakoa.
- Tokako eta nokako formak oso antzekoak dira gehienetan, eta ira-
ganekoetan amaierako -EN partikula da biak bereizten dituen;
erruz agertzen da.
- NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erako formak ondo bereizten
dira.
- Laguntzailetan NOR-NORI erako formetan -A- bokalak osatzen du
erroa: zatek, zakun...
- Tauletan era batekoak bakarrik jarri diren arren, batez ere ergatiboa
singularreko lehen pertsonak osatzen duenean forma bat baino
gehiago azaldu dira: ditt/diyat, nixkin/nixkiyan...

Aditz laguntzaileak (AL)

Aditz trinkoak (AT)

Orri honen atzetik datozen tauletan formak esaten diren bezala jaso
ditugu, hala saiatu gara behintzat. Horregatik, izenordain (ura,
adxe...), aditz-forma (unan, nidxuen, zitxaxkun...) eta adibideetan
(semia, prejittuak...) ez duzu H-rik eta horrelakorik topatuko.

Taula bakoitzaren ondoko oharren hasieran bizpahiruna adibide
jarri ditugu, aditzen kategoria erosoago kokatu eta interpretatzeko erra-
zagoa izan dadin.

ESATE BATERAKO

- > Ni Pikoteko semia nauk
- > Ura sasoi batian oso guapa izan unan
- > Leno lana biar bezela in izan bagendu oaiñ ez gitxikin ola ibilliko

OHARRAK

- Forma bikoiztuak ageri dira: TZ/TX eta Z/X
- OKE/IKI bikotea; -IKI azaltzen denean bukaerako K hori batzuetan galdu egiten da
- Uzke/itxuke biak jaso ditugu
- UNAN-ekin batera zenbait kasutan NUNAN ere jaso dugu. Hasierako N hori aditz perifrastikoetako lehen adizkiak lagatako arrastoa izan daiteke: ETORTZEN UNANetik ETORTZE NUNANera igaro eta beste kasu batzuetan ere NUNAN erabili.
- Forma batzuen hasierako DI- hori askotan entzun ere ez da egiten: etorri txuk, jun txun...

OIKIAN

nauk/n	niñun/en	niñuke/ne
aix	itxan/en	itxake/ne
dek/n	uan/en	uke/ne
gaittuk/n	giñun/en	giñukek/ne
dittuk/n	ittun/en	ittuke/ittukene

Oharrak

- Alde handia zumaiarrekin, TX/Ñ bikotea aurkitzen baitugu: GITXUAN/GIÑUN, GITXOKEK/GIÑUKEK.
- UNAN/UANEN. Yrizarren liburuan Azkuek Oikiarako UNAN bildu zuela ageri da, baina guk UANEN besterik ez dugu jaso.

A L

		IZAN (NOR)		
		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA
NI		nauk nauk	ninduan nitxuan	nindukek nitxokek nitxiki(k)
		naun naun	nindunan nitxonan	ninduken nitxoken nitxikin
I		haiz aiz aix	hintzen itzan itxan	hintzateke itzake itxake
		haiz aiz aix	hintzen itzanan itxanan	hintzateke itzake itxake
URA		duk dek	zuan uan	lukek uke
		dun den	zunan unan	luken uke
GU		gaituk gatxuk	gintuan gitxuan gatxuan	gintuzkek gitxokek gitxiki(k)
		gaitun gatxun gatxunan	gintunan gitxunan itxanan	gintuzken gitxoken gitxikin
ADXEK		dituk dixuk	zituan itxuan	lituzkek uzke itxuke
		ditun dixun	zitunan itxunan	lituzken uzke itxuke

ESATE BATERAKO

- Antonioi olarrua earki leortu zikok
- Atzo illobak bixitan etorri zizkanan

OHARRAK

- Singularretik pluralera dagoen alde bakarra -Z- pluralgilea da forma guztietan (Ura hiri kasuan izan ezik).
- Forma oso bereziak dira, inguruko herrietan (Zarautz, Getaria...) esaten direnetatik oso desberdinak.
- NORI 3. pertsona plurala denean UE/ONE bikotea aurki dezakegu (zikue(k)/zikone). Tarteko -N- hori da biak bereizten dituen, eta bokal desberdin hori aldaketa fonetiko batek azaltzen du: O ireki egin da U bihurtuz, eta N hori berori da nokako forman aldaketa hori galarazten duena.
- Yrizarrek bere liburuan ZIKOEK/ZIZKOEK proposatzen ditu. Guk nahiago izan dugu azken K hori parentesi artean jartzea, kasurik gehienetan ez dugulako K hori jaso.

OIKIAN

zatek/n	zaxkitek/n	zitzaten/en	zitzaxkiten/en
zak/n	zaxkik/n	zitza(i)n/en	zitzaxkin/en
zayok/n	zaxkok/n	zitzayon/en	zitzaxkon/en
zakuk/n	zaxkuk/n	zitzakun/en	zitzaxkun/en
zayek/n	zaxkek/n	zitzayen/en	zitzaxken/en

Oharrak

- Alde handia dago Zumaian bildu diren formekin.
- Pluralgilea -XKI da.
- Yrizarrek liburuan jaso dituen formekin alde handia dago, baina geureak kontrastatutako formak dira, lekuko batekin baino gehiagorekin. Yrizarren liburuan honakoak ageri dira: zaidak/n, zai-guk/n, zaitzak/n, zitzakan/nan, eta abar.

A L

		IZAN (NOR-NORI)			
		Oraina		Iragana	
		URA	ADXEK	URA	ADXEK
NEI		<i>zaidak</i> zikak	<i>zaizkidak</i> zizkak	<i>zitzaidaan</i> zikan	<i>zitzaizkidaan</i> zizkan
